

Nick FALK
TONY FLOWERS

SAMURAI VS NINJA

SHŌGUNEN
ALTXORRAREN
BILA



desclée



Samurai Vs Ninja 2: The Race for the Shogun's Treasure

Testua © Nicholas Falk, 2015

Illustration Copyright © Tony Flowers 2015

Random House Australia Pty Ltd, Sydney, Australia

Itzulpena © 2017 Usoa Wyssenbach Ibarra

© 2017, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.

Henao, 6 - Bilbao

Tlf.: 94 423 30 45

www.edesclee.com

info@edesclee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).

CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.

ISBN: 978-84-330-2957-7

Legezko gordailua: BI-2071-2017

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A. - Zarautz

SAMURAI VS NINJA

SHÖGUNEN ALT XORRAREN BILA



NICK FALK eta TONY FLOWERS

desclée





Honshu-n, Japoniako irlarik
handiengan, bada Tokio izeneko
hiri bat.

Orain dela hirurehun urte, ordea, Edo zeritzon, eta ilunak eta zikin-zikinak ziren bertako kaleak, eta etxeak, berriz, paperezkoak.

Hiria misterioan eta magian bildurik zegoen.



Gauerdia zen. Ilunpean, txerri batek kurrinka egin zuen. Ez oso urrun, agure zahar bat zebilen hatzaz sudur-zuloak arakatzen. Baina inortxo ere ez zen ohartu, ez baitzegoen bonbillarik Edo Aroan Japonian.

Lapur bat, beltzez goitik behera, lasterka zihoan hiriko kaleetan barrena.

Zola leuneko *tabi* botak zeramatzan,
isil-misilka ibiltzeko.
Edo gaztelurantz zihoan
zuzenean, *Shōgunen*
bizitokira,
hain justu.



Shogun zen Japoniako agintari gorena.
Mendia bezain sendoa, eta belatza bezain
boteretsua, inor ere ez zen ausartzen
haren aginduak ez betetzera.

Tira, bakar bat izan ezik.



Bi guardia sendokotek zaintzen zituzten
gazeluko atea. Lapurrak, orduan,
banbuzko lastotxo bat atera zuen
poltsiko sekretu batetik.

Fuu!

Ilar idor pare batek ziztuan zeharkatu
zuten airea.

TAK!

TAK!



Ez bat eta ez bi, guardiak zerraldo
ziren erori.

Lapurrak gardien gainerik salto egin,
eta tipi-tapa igo zen gazteluko hormetatik,
armiarma bat bezain isil.





Orduan, bat-batean gelditu, makurtu,
eta entzuten geratu zen.

Oguma-za, Hartz Handia, Shōgunen
altxor kuttuna lapurtzera zihoan.

Mendeku bila baitzetorren lapurra.